

UDAL-BATZARRA 01/08

UDAL-BATZARRAK, 2008ko URTARRILAREN 30ean EGINDAKO OHIKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka

ZINEGOTZIAK:

Ainitze Etxaniz Iraola

Eider Garmendia Arrieta

Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga

Alazne Ruiz Luluaga

Gregorio Zuaznabar Urkola

Fidel Azpiroz Arrillaga

Jose Ignacio Otermin Garmendia

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2008ko urtarrilaren 30ean iluntzeko zazpirak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohikanpoko Bilkura egin asmoz Pedro M^a Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Joseba Agirrezabala Ayestaran zinegotziak lana dela eta ezin etorria adierazten du eta idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

Alkate jaunak adierazten du:

“Hasi aurretik, pleno honen zergaitia argitu nahi nuke. Ohikoa, datoren astean, 7an, egin beharko genuke baina konturatuko zineten gaur dagoen puntuetako bat Kutxaren gobernu-Organoen izendapenean parte hartzearena dela. Erabaki hori hil honen 31^a baino lehen behar du izan. Plenoekin ibiliko gara nahiko nahasian. Hauteskundeak direla eta, mahaiak osatzeko, beste ezohiko bat egin beharko dugu 9-13 artean.

1.- 2007KO AZAROAREN 14EAN ETA ABENDUAREN 20EAN OSPATURIKO AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

EAJ talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak adierazten du, azaroaren 14ko aktan, 2. puntuan, 470 dekretuari buruz, datu pertsonalari buruzko aipamena egiten denean, zuzenketa txiki bat egin nahi du:

ESATEN DEN LEKUAN:

“470 dekretuan, Sare-Berriri ordaindu zaio faktura bat. Sare-Berrik zeukan bi hitzarmen bat ekipoen mantenimendurako eta beste bat datu pertsonalen babeserako legearen ingurutik laguntza emateko. Ez dakit hortik datorren ordainketa hori edo zer”.

ESAN BEHAR DU:

“Dirulaguntza lortu zen oinarritzko lege hori aplikatzeko bakarrik. Esan genuen bezala, hori aplikatu da eta aplikatzen den neurrian, uste dut direla 4 urteren barruan, auditoria egin beharra dago”.

Aktaren gainontzeko zatiak partaideek aho batez onesten dute.

Era berean, 2007ko abenduaren 20ean egindako bilkuraren akta irakurri eta aho batez onetsirik geratu da.

En cuanto al resto del acta, se aprueba la misma por unanimidad de los reunidos.

Asimismo, es leída y aprobada por unanimidad de los reunidos el acta de la sesión celebrada con fecha 20 de diciembre de 2007.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 479TIK 594A BITARTE, BIAK BARNE.

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“481 dekretuaren inguruan. Kiroldegian freskagarriak jartzeko aparato hori utzi albora eta gazteek beraien freskagarriak saltzeko eskaera. Hasteko, kiroldegian jarrita dauden makina freskarrien helburua, helburu sozial bati erantzutea zen; konkretuki ”Gureak”-ek jarri zuen eta hor ateratzen den etekina bideratua dago beraiek dituzten helburu sozial horiei aurre egiteko. Orain, helburu hori nolabait gutxituta geratuko litzateke, gazteek gehienbat kontsumitzeko momentua partiduetan izaten bait da. Hori lotuta, Foru Aldundiak baditu dirulaguntzak klubei emateko, kirol aktibitateak bultzatzen dituzten klubei emateko. Dударik gabe, Anoetako Gazte Asanblada federatua dago eta eskubide osoa du dirulaguntza horiek lortzeko. Guk alderdi horretatik ikusten dugu muzin egiten zaiola dirulaguntza horren eskaerari. Bere garaian gai honi buruz, eskaera egiten duen pertsona honi ere aipatu zitzaion aukera hori. Bestalde, 2007 aurrekontuetan aurrikusita zegoen nolabait herrian kirola bultzatzen duten elkartei dirulaguntza ematea. Diru hori aurrekontutan hor dago, agian orain ezin daiteke gastatu. Honen helburua zen kirola nolabait bultzatzen duen herriko taldeei laguntza ematea. Ikusten dugu alderdi batetik helburu soziala duen makinei etekina gutxitzen zaie eta bestetik beste aukerak ez dira esploratu, ez dira aurrera atera. Hor desegokitasun bat ikusten dugu”.

Alazne Ruiz Luluaga zinegotziak ondorengo adierazten du:

“Gaztetxerako dirulaguntza eskatu beharrean, nahiago da autogestionatzea horrelako gauzen bidez. Gainera makinak martxan jarraitzen dute”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Horrek kondizionatu egiten du. Momentu honetan dagoen eskaintza bakarra makinak dira eta orain bikoiztu egiten dira. Autogestioa filosofia bat da baina bestalde herriaren ikuspegitik eta dakarren onuragatik egokiago da laguntza hori Gazte Asanbladak Udaletxera bideratzea”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Guk jasotakoarekin, makinak helburu sozial bat betetzen dutela “Gureak”-ekoekin eta Foru Aldundiak klubei laguntza eman diezaieketela, nahi baduzue, idatzi bat bidal diezaiekegu”.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“482, 483, 484, 507 eta 569 dekretuen inguruan. Nolabait dira A9-A8 eremuan finkatutako enpresei emaniko ur baimenak. Hor ikusten dugu baimenik gabeko poligonoan egiten dira eraikuntza horiek, inolako baimenik ez dute eta bai promotoreak eta bai udalak badaki zergaitik ez duen baimenik eraikuntza horiek egiteko. Nolabait harridura zentzu horretan, ura izateko baimen horiek eman direlako eta gustatuko litzaziguke jakitea udalak zer asmo duen hor zeuden bi kontentziosoekin. Erabakia etorria dago, ikusi dugu, hor egoera nola geratuko litzateke? Udalak zer asmoa du?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Gure iritzia da gauzak ez zirela egin egin behar ziren bezala; baina egin ziren eta orain zenbait kasuetan 3. salmentak ere egin dira. Hori guztia aurrera joan ondoren hauei ura ukatzea, ez dakit, etxea dena egin eta teila bat kentzea bezala izango litzateke. Hori alde batetik, bestetik, gaur bertan etorri da Jose Ignacio Galárraga, reparzelazio proiektuari inguruko zirriborroa ekarri du ia baimena eskatzeko eta gauza horiek nola zuzendu ere adierazten dute. Bestalde kontentziosoak ere bete egin dira. Nik uste dut, konpontze bidean gaudela eta bide horretan ez du zentzu gehiegirik hauei uda ukatzea. Beraiek han aldamenean duten iturritik mangerakin hartzen dutelako. Leku guztietan mangerak, tuboak ikustea baina egokiagoa iruditzen zaigu baimena eman eta gutxienez ura ordaintzea. Gainontzekoak esan bezala, konpontze bidean daude eta laister beraiek beste bilera bat egin nahi dute eta gonbidatuko zaituztegu”.

Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotzi jaunak adierazten du:

“Hor sortutako arazoetariko bat biala zen. Asmoa da biala mantentzea Arauak esaten duten bezala?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Biala mantendu egin beharra dago”.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“486 dekretuaren inguruan. Sare-Berriren ordainketa bat da. Aurrekoan ere bazen horrelako bat. Orduan galdetu zen ordainketa hura Sare-Berrik Anoetako udalari ematen dion mantenu zerbitzuarena edo datu pertsonalaren babeserako ematen den laguntzarena den. Hori argitzeko geratu zen”.

Idazkariak erantzuten du:

“Aurrekoa, datu pertsonalaren babesekoa ordaintzeko zen”.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“525 dekretuaren inguruan. Hemen langileen lan orduen murrizpen bat egiten da. “Función Pública”n lan egiten duten pertsonak urtean 1592 ordu egin behar dituzte. Kalendarioan koadratzeagatik, egin beharreko orduak eta egiten dituzten orduen arteko kitapen bat suertatzen da eta aurten 1575 ordutara jeitsi zen. Orain berriz 1561 ordutara. Langile ikuspegitik zenbat eta ordu gutxiago egin pozgarriago baina aldi berean, bete beharrak, konpromisoak daude. Ez dut uste nominan deduzioak ekarriko duenik, dedikazio aldetik ezta ere. Beraz, nola konpentsatzeko asmoa dago udalari zor zaizkion lan-ordu horiek?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Hau egin zenean kontutan izan zen udaletxe honetako langileek edukitzen duen borondate ona. Edozein garaitan, edozein momentutan esaten bazaie hau bukatu arte pixka bat egongo zara? Askotan geratzen dira bere ordua bete eta hor 10, 15 minututara ateratzea, besteak beste, gaur eguerdian ere. Langileen disposizio hori ikusita eta hor gelditzen diren ordu kopuruarekin ez dagoela beste munduko gorabeherarik ikusirik, gure iritziz behintzak, onartu zen hori. Zuk ere ikusiko zenuen, hileroko langileen fitxa pasatzen denean askotan daude asteari tokatzen zaizkien baino minutu gehiago”.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“586 dekretuaren inguruan. Kreditu gehitze bat da. Gustatuko litzaziguke jakitea zein kontzeptutatik eta zein arrazoigatik egin den kreditu gehitze hau”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Gastu pertsonaletan gehikuntza bat egon da Rai eta Oskar ditugulako eta beste zenbait gastu kultura aldetik etorritakoak. Gastu horien finantziazioa egin zen bigarren kapitulotik eta zuzenki goi karguentzako zegoen asignaziotik. Oraingo alkateak gutxiago kobratzen duenez hor diru pixka bat geratu zen eta gainontzekoa gastuetako beste zenbait partidatik hartuz konpentsatu zen hor zeudenak”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Posible litzateke espedientearen desglosea eskuhartzea?”.

Idazkariak erantzuten du:

“Utziko zaizkizue zuen despatxuan. 1. kapituluan azaltzen diren pertsonal gastuak (7.500) alkatearen nomina eta seguritate sozialean oinarrituta dago”.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“570 dekretuaren inguruan. Gogoratzen naiz hasiera batean ez genuela daturik zenbat gasoil konsumitzen zen kiroldegiko kalefazioan baina konturatu ginen asko zela. Horrela, makinan dauden gelan kontrolatzeko aparatua jarri zen. Gaur egun kiroldegian kontsumitzen den gasoila kontrolatzen da?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ez da erreza kontrola ematea. Han jarrita dagoen markadore hori ez dakit ongi dagoen. Udaletxean edo ikastolan gastatzen den kopurua ikusita kiroldegian askozaz gehiago gastatzen da. Lehengoan deitu nion enpresari etorri eta errebisa zezala ea markadore hori dagoen gaizki edo benetako kontsumoa den. Instalazio honek komeriak emango dizkigu. Industriako baimenak ekarri zituzten eta behar den mantenimendua egiteko enpresa ezberdinei eskatu diegu aurrekontua. Gure sorpresarako, udaleko mantenu gehienak egiten dituen enpresak “Tartek” esan du hor ez dela sartuko, ez zaiola bat ere gustatzen hori nola dagoen. “Geuk” enpresari ere esan diogu eta prestatzen ari da, badugu eskuartean besteren bat. Kalefazio sistema hau badirudi bonba guztiak itzalita daudenean gehien berotzen duela eta hurruna berri, bonbak martxan daudenean ura hotza ateratzen da; horregatik nahi genuke mantenimendu presupuesto horiek ikusi, begiratzeko nola funtzionatzen duen. Egia da, lehen ere beste gasoil karga bat izan genuen, orain bigarren bat. Nahiko harrituta gaude daukan kontsumoarekin. Badirudi, normala baino bastante gehiago kontsumitzen duela”.

3.- GIPUZKOA ETA DONOSTIA KUTXAREN GOBERNU-ORGANOEN IZENDAPENEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA.

Guipúzcoa Donostia Kutxako Idazkari buru den Ramon Zubillaga Odriozola jaunak aurkezturiko idatzia ikusirik non besteak beste zera dioen:

“Gipuzkoako Donostia Kutxaren Gobernu-Organok izendatzeko Arautegiaren 20. artikulua xedatzen duena betez, Anoetako Udalak 2008ko urtarrilaren 31^a baino lehen agrupazio berri bat egiteko akordio hartzen ez balu, 2006 urtean izendatutako kontseilariak 2010 urterarte mantentzen dute bere izendapena”.

Ondoren, Alkateak ondorengo adierazten die bertaratutakoei:

Visto el escrito presentado por el Jefe de Secretaria de Guipúzcoa-Donostia Kutxa D. Ramón Zubillaga Odriozola en el que señala que:

“De conformidad con el artículo 20 del Reglamento para la designación de los Organos de Gobierno de la Caja de Guipúzcoa y San Sebastián, el Ayuntamiento de Anoeta si no se tomara acuerdo para adoptar nueva agrupación antes del 31 de enero de 2008 los Consejeros nombrados en 2006 continuarían su mandato hasta 2010”.

A continuación el Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

“Orain dela 2 urte edo, beste 10 partaideen berritze bat egin zen; orduan, Anoetak Ibarra eta Legorretarekin egin zuen agrupazioa eta ordezkaria zu zuen, Fidel, zinen eta ordezkia Chelo Romero. Orain 4 kargu berritu behar dira eta lau kargu horietan parte hartu ahal izateko egitea pentsatu dugun agrupazioa da Anoeta-Villabona-Alegia-Legorreta”.

Alkate jaunak, Anoeta-Villabona-Alegia-Legorreta agrupazio berria bozketara eramaten du, ondorengo emaitza lortuz:

El Sr. Alcalde somete a votación la formación de la nueva agrupación con los municipios de Anoeta-Villabona-Alegia-Legorreta, obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: SEI (EAE talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: BI (EAJ talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ

Bozketaren emaitza kontutan izanik, gehiengo batez ondorengo onartzen da:

- Gipuzkoa Donostia Kutzaren Gobernu Organoak ostuko dituzten Kontseilari Orokorren aukeraketan ordezkari izan ahal izatateko, segidan zerrendaturik doazen Udalak
ELKARTZEKO PROPOSAMENA onetsirik geratu da.

A la vista del resultado obtenido en la votación, se acuerda por mayoría de los reunidos:

- FORMAR AGRUPACIÓN de los municipios que a continuación se relacionan, a efectos de obtener representación en la elección de Consejeros Generales que constituyan los Organos de Gobierno de Guipúzcoa Donostia Kutxa.

ANOETAKO UDALA
VILLABONAKO UDALA
ALEGIKO UDALA
LEGORRETAU UDALA

4.- MANKOMUNITATEA DESEGITEAREN ONDORIOZ, BERE FUNTZIOAK UDALAK ASUMITZEA.

Alkate jaunak bertaratutakoei zera adierazten die:

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

“2006ko martxoaren 28an hartu zen junta disolbatzeko erabakia; beraz, aspalditik badator ere arazoak sortzen dira zer egin bertan dauden langileekin. Informe festa dexente ere badamakigu tartean. Aurreko legealdian M^a Angeles Ferrerorekin akordio batetara iritis zineten, 25.000 euroko indemnizazioa jaso eta berak utzi egingo luke mankomunitatea. Gelditzen dira Jose M^a , M^a Dolores eta Amaia. Amaia kasuan ere ez legoke arazorik, bera orain jornada osoan dago udalean beraz mankomunitatean zuen dedikazioarengatik zenbateko indemnizazioa jaso behar duen adostea izango litzateke. Beste bi langileekin zer egin behar den hasten garenean sortzen dira eztabaidak. Ikastola, entitate publikoa balitz nolabaiteko subrogazioa eman liteke eta Jose M^a eta M^a Doloresen zerbitzuak jarraitu egiten dute. Aspalditik kiroldegia martxan jarri zenetik, Jose Marirekin hitz egin zen ikastolako lanaz aparte beste zati bat kiroldegian egiteko eta nahiko adostasunera iritxi zineten. M^a Dolores ere hasiera batean beste enpresa baten inguruan lan egin zezakeen; gero guri esan zigun ezetz, udaletxean sartzeko aukera bazuen hori nahiago zuela. Momentu honetan, Ikastola entitate pribatu konzertatua da baina guk konsideratzen dugu herrian dagoen ikastetxe bakarra dela; ikastola izaera du noski, horrek ematen duen zerbitzua, zerbitzu publikoaren parekoa da eta gaur arratsaldean Fidelek eman didan beste informe batean, honen inguruan jartzen du 3. proposamena bezala “hay que tener en cuenta que la mancomunidad se creó para llevar a cabo un servicio de carácter municipal y que aunque se disuelva la misma, el servicio se va a seguir prestando, por lo que se prevé la posibilidad de que el Ayuntamiento de Anoeta, modifique directamente su Relación de Puestos de Trabajo y proceda a incluir esta plaza en la misma”. Uste dut intenzio horrekin egin zela joan den urteko plantila organikoaren modifikazio. Gero Nekaneren informe bat badugu hor subrogazio hori ez litzatekela posible izango lehen esan dudan arazoagatik, entitate pribatu bat izateagatik. Hala ere, guk dugun ikuspegia kontutan hartuta eta horrek ematen duen zerbitzua publikoa dela, proposatuko nuke zerbitzu hori subrogazio bezala hartzea. Proposatzen da bi langile hauen kontratua urtarrilaren 31ean amaitzea Mankomunitatearekin. Jose M^a lehen prebistatuta zegoen

plazan otsailaren Itetik aurrera sartu eta garbiketako beste plaza bat sortu beharko genuke aurtengo plantilan. Hitz egin nuen Amaiarekin, bere ama baxan dagoelako, emakume honek 61 urte ditu eta momentuz nahiz eta plantilan postu hori sortu, gero ikusiko litzateke horrekin zer egin. Ikastolarekin harremanetan jarrita, beraiek argi dute kanpoko enpresa baten bidez gauzak errezago egin daitezkeela eta hemendik aurrera udalak egingo lituzken komenioak ikastolarekin beti subentzio modura izango lirateke. Beraz proposatuko genukena hori izango litzateke naiz eta "advertencia" hori izan subrogazio figura hori mantentzea eta beste akordiorik behar bada aurreago hartuko genuke".

Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak adierazten du:

"Aspalditik dago Mankomunitatea desegiteko ideia. Orain dela 9 urte hasi ginen eta badirudi oran bukatuko dela. Guk, azken urte hauetan nahi genuena da lege barruan egitea. Zuek esan bezala, txosten batean gauza bat esaten da eta beste asesoreak beste bat, badirudi gauza garbi-garbi ez dagoela. Azkenean geratu zen Jose M^a bideratua eta M^a Dolores bukatu gabe. Hau dela ikusita, guk, nahiz eta ez gustatu Nekaneren txostena, errespetatzen dugu baina agian bi detailetxoekin: M^a Doloresen kasuan, plaza berri bat sortu behar da, nahi genuena da konpromezu bat bera jubilatzen denean amortizatzeke plaza hori, ez badaude gero beste beharrak noski; printzipioz plaza berri hori sortu baldintza horrekin. Bigarren gauza, hitzarmen bat egin ikastolarekin subentzioa bideratzeko eta baita ere kontutan hartu behar da Anoetako Udalak ez duela %100^a hartuko, mantenduko da proportzioa gaur arte bezala Irurakoekin. Ikusita Paduraren txostena ematen du guk hartzen dugula gure gain dena. Bi gauza horiekin eta naiz eta Nekaneren txostena irakurri, onartuko genuke bukaera emateko asuntari".

Alkate jaunak, adierazten du:

"Likidazioaren gora-behera honetan ere, Irurak jarraitzen du aportazioak egiten lehengo proportzioan eta erabat ados. Sortzen den lanpostu hori edo beste bat sortzen bada ere, bukatzean amortizatuko dira eta pertsona honek bukatzen duenean, besterik balego pasako lirateke beste nonbaitera, subentzio bidez edo. Nik uste dut Udal honek ezingo duela duen langileen plantila baino handiago denbora luzez soportatu eta ikusita nola dagoen, duen adina, daukan egoera, ados".

Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak adierazten du:

"Ahaztu egin zait esatea, ematen du Udalak hartuko duela bere gain administrazio guztia, ordainketa guztiak; Amaiak egiten duen lana. Karga hori ikastolaren esku geratuko da . Baita ere esan nahi nuke, Mankomunitateari buruz, beste txosten bat egin zuela Xabier Urgoitik".

Alkate jaunak, adierazten du:

"Hori nonbaiten ikusi dut. Detailetxo bat ahaztu egin zait, Mankomunitatearekin eginiko bileretan, Mikelek hartu zuen konpromezua gauzak prestatzeko eta 4 edo 5 hilabete hauetan ez du paper bat bera ere mugitu. Mankomunitatearekin ez du inolako kontraturik Mikelek baina dirudienez urtean bi aportazio jasotzen ditu 900 eurotakoak. Lehenengoa jaso du baina bigarrena ez du jasoko. Likidazioa egiterakoan guztiei ordainduko zaie baina Lazkaotik honera etorri ezin duenari eta paper bat egin ez duenari ez zaio emango. Garbi utzi nahi nuke, lehen ere ez zen oso txukuna baina azken bolara honetan oso zabarra izan da".

Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak adierazten du:

“Suposatzen dut desegin baino lehen Mankomunitateak akordio bat hartu beharko du zer egoeratan geratzen den”.

Alkate jaunak, adierazten du:

“Bai, akordio hori hartu beharko da”.

Herri Irakaskuntza Mankomunitateko espedientea ikusirik.

Udal aholkularia den Oscar Padura Unanue jaunaren txostena ikusi ondoren.

Udaletxeko AOT den M^a Jose Sánchez Plazaren txostena ikusirik.

Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak eginiko txostena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- Udalak bere egitea Herri Irakaskuntza Mankomunitatean lanean ari ziren honako langileak, bere lan eskubide eta betebeharrekin, lanpostuen zerrendan txertatuz 2008ko otsailaren 1etik aurrera.

- M^a Dolores GOROSTIDI OLARIAGA
- José María IÑURRITA GALÁRRAGA

Bigarren.- Erabaki honen berri ematea:

- Gizare Segurantzako Institutu Nazionalari.
- Enpleguko Institutu Nazionalari (EIN-INEM)
- Pertsonal interesuari

Visto el expediente de la Mancomunidad Herri Irakaskuntza.

Visto el informe emitido por el letrado asesor del Ayuntamiento D. Oscar Padura Unanue.

Visto el informe emitido por el TAG, Dña. M^a Jose Sánchez Plaza.

Visto el informe emitido por el Secretario-Interventor del Ayuntamiento.

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos

Primero.- SUBROGARSE en los derechos y obligaciones laborales del siguiente personal, que venía prestando servicios en la Mancomunidad Herri Irakaskuntza, incorporándolos en consecuencia en la Plantilla Orgánica del Ayuntamiento con efectos de 1 de febrero de 2008.

- Dña. M^a Dolores GOROSTIDI OLARIAGA
- D. José María IÑURRITA GALARRAGA

Segundo.- Dar cuenta del precedente acuerdo al:

- Instituto Nacional de Seguridad Social
- Instituto Nacional de Empleo (INEM)
- Personal afectado

- Udaletxeko langileen ordezkarietara

- Representantes de los trabajadores del Ayuntamiento

Hirugarren.- Dirulaguntza ematea Anoetako Herri Ikastolaren zentroaren mantentze gastuetarako.

Tercero.- Conceder una subvención en concepto de ayuda para los gastos de mantenimiento del centro “Anoetako Herri Ikastola.

5.- EAEK AURKEZTURIKO “TORTURAREN AURKAKO” MOZIOA.

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri egiten du:

El Sr. Alcalde procede a dar lectura de la siguiente moción:

“UDAL OSOKO BILKURARA. Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatuak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helgurua duen MOZIOA aurkezten da.- 2008ko urtarrilaren 6an, goizeko 10ak aldera, Espainiar Guardia Zibileko GAR delakoak Igor Portu Juanen eta Mattin Sarasola atxilotu zituen Arrasaten. 18 ordu beranduago Igor Portu Donostia Ospitaleko UCIn ingrestau behar izan zuten. Txosten medikoaren arabera saihets bat hautsia du, saihts hautsi horrek ezkerreko birika zulatu dio eta, ondorioz, pleura eta odol isuri larria izan du. Gainera, larruazalaren azpian enfisema handia du –azala puztua-, ornoetatik pelbiseraino. Disnea ere badu Portuk –arnasa hartzeko zailtasuna-, hematoma, higadura eta urradura ugari belaur eta orkatiletan, eta ubeldua eta odol bildua ezkerreko begian. Mattin Sarasola, Guardia Zibilaren esku eta inkomunikaziopean zegoela, torturatzen jarraitzen zutela jakin genuen. Forenseak berak jasotakoaren arabera ubelduak eta makatuak zituen gorputzeko hainbat ataletan, hala nola, eskuineko belarrarian, bi besoetan, bizkarraren goialdean, toraxaren eskuinaldean eta ezker alboan.

oliziarren bertsio ezberdinek, Rubalcaba ministroaren egiaztapen lotsagarriak, Zapatero presidenteak Guardia Zibilari agerturiko babes osoak, argi eta garbi agertzen zaigun Tortura kasu larri honen aurrean ez dute inolako sinesgarritasunik. Zoritxarrez luzea da Euskal Herriak jasan behar izan duen Torturaren historia, frankismo ilunetik jarraipen osoa izan duena. 1978tik aurrera 7.000 euskal herritar baino gehiagok salatu dituzte Guardia Zibila, espainiar Policía Nacionala edota Ertzaintzaren eskuetan jasandako Torturak. José Arregi, Esteban Murueta Goiena, Mikel Zabalza, Lasa eta Zabala, Gurutze Yantzi, XabierKalparsoro... Torturak erahildako euskal herritarren zerrenda horren lekuko.

Espainiar Estatuak etengabe eta sistematikoki erabili izan du eta erabiltzen du Tortura Euskal Herriko eskubideen aldeko borroka eta lan ezberdinetan antolaturiko herritarren aurka. Argia ikusi dute kasuak, proiektio mediatikoa izan dutenak, salbuespenak ditugu. Unai Romano, Egunkariako Atxilotuak,... izenberga handi baten punta txikia besterik ez dira. Milaka tortura kasu dira isiltasunak ezkutatuak.

Tortura Estatu batek bere indar eta inpunitate osoz herritar babesgabetuaren aurka ezartzen duen bortizkeria da. Torturaren atzean Estatuak aparatatu guztiak daude, policia indarrak tortura gauzatzen, gobernuak agintzen, legislatiboa tortura ahalbidetzen duten legediak onartzen, justizia aparatatuak inpunitatea bermatzen. Guardia Zibilak PSOEn gobernuaren aignduz torturatzen du, espainiar kongresuak onetsitako inkomunikazioa erabiliz, Audientzia Nacionala inpunitatea bermatzen du.

Baina bada beste elementu bat Tortura posible egiten duena. Espainiar segurtasun indarren jardura irmoa eskatzen denean, espainiar Justiziaren jardunari babes osoa agertzen zaionean, Torturari bidea irekitzen zaio. Eta Tortura kasuak ezkututzen direnean, torturatuen testigantza eta salaketak isilarazten direnean, Tortura kasu berriak posible egiten dira. Horren arabera nerutzen da alderdi

político, eragile ezberdin zein komunikabideek torturaren aurrean dduten ardura, baita Torturarekin amaitzekoduten aukera ere.

Espainiar Estatuak, PSOEren gobernuak, Euskal Herriaren aurka darabilen estrategian Torturaren erabilera gordintzea eta areagotzea erabaki du, une politiko jakin batetan eta helburu zehatzarekin: Euskal independentismoa bortizki kolpatzea. Atxiloketak, epaiak eta zigorrak, lgez kanporatzeak, baita torturak ere, independentziari ateak ixteko, konponbidea ukatzeko, Euskal Herriaren eskubideak jazartzeko erabiltzen ditu.

Abenduaren 1ean PSOEren Gobernuaren estrategia errepresioari babes osoa agertu zioten hainbat alderi politikok Madrilgo Kongresuan. Egun batzuk geroago ezagutu genuen Gorka Lupianez euskal herritarren Tortura testigantza beldurgarria, ezkutatua eta isilarazia izan zen Urtarrilaren hasieran Igor Portu eta Mattin Sarasola izan dira Tortura latzak jasan dituztenak. Hurrengo? Torturaren sekuentziari amaiera jarri behar zaio, behingoz eta betiko. Euskal Herrian torturarekin amaitzeko oihua ozen eta argi entzuten dugu, eragile bakoitzari dagokio bere ardurari eutsi eta Torturarekin amaitzeko neurriak hartzea.

Gauza bakoitzak du bere izena, hau Tortura da. Eta gauzak diren moduan esan behar dira; Tortura sistematikoki eta helburu politikoekin erabiltzen duen Espainiar estatua ez da zuzenbide Estatu bat, Espainian ez dago demokraziarik, ez dago Euskal Herriarentzako ezta euskal herritarrentzako eskubide aitortzarik. Ez da epelkerietarako garaia. Tortura argi salatu beharrean “zalantzak, zantzuak, kontraesanak...” aipatzeak ez du baliorik. Zertarako balio du Espainiar Gobernuari edo Justicia aparatuari “kasu hau” argitzea eskatzeak? Espainiar Gobernuak gezurren bitartez estali nahi izan du Tortura kasu hau, agerikoa izanik ere, poliziaren bertsioen aurrean hamaika zantzu eta lekukoen testigantza izan arren. Espainiar Justiziak inpunitatea bermatzeko neurriak besterik ez ditu hartu, Audientzia Nazionala atxilotuen inkomunikazioa espetxean luzatuz argi agertu duenez.

Torturarekin amaitzeko badira gaur bertan hartu daitezkeen benetako neurriak, Espainiar Estatuari, PSOEren gobernuari, euskal herritarren aurka Tortura erabiltzea zailduko diotenak, tortura saltu eta babesgabatu behar da, torturatzen dutenak argiki salatu behar ditugu, tortura posible egiten duen isiltasuna behingoz apurtu behar da. Baina Torturarekin betiko amaitzeko behar den neurria bestelakoa da, Euskal Herriak bere eskubideak errespetatuak izan behar ditu, Euskal Herriak mrko demokratiko bat behar du, euskal herritar bat espainiar zein frantziar polizi indarren eskuetan torturatua izatea ezinezko egingo duen marko demokratiko bat.

Hau guztia dela eta honako mozioa aurkezten dugu udalosoko bilkurak eztabaida eta onar dezan.

1.- Udal honek irmoki saltzen ditu Igor Portuk eta Mattin Sarasolak Guardi zibilaren esku jasan dituzten Tortura latzak, baita azken urte luzeetan pilatu diren milaka tortura kasuak ere.

2.- Udal honek argi agertu eta saltu nahi ditu Tortura kasu honen atzean dauden ardura guztiak: tortura erabiltzen dute espainiar polizi indarrak, torturak agindu edota baimentzen duen espainiar Gobernuak, inpunitate osoa eskaintzen dion Justizia aparatua, baita Tortura kasu hau isilarazten edo justifikatzen saiatu diren alderdi politiko zein komunikabideak ere.

3.- Udal honek, euskal herritarrek espainiar polizi indarren eskuetan jasaten duten Torturarekin amaitu asmoz honakoa nabarmendu nahi du: euskal herritarrek torturatzen dituzten espainiar polizi indarrek zein inpunitate bermaten duen espainiar Justizia aparatua ez dute Euskal Herrian inolako zilegitasunik. Hortaz, hauei babes agertzea Tortura ahalbidetzea besterik ekartzen ez duenez, eragile politiko, social zein sindikalei babesik ez ematea eskaten diegu eta behingoz Torturarekin amaitzeko jarrera argia eta beharrezko neurriak har ditzatela.

4.- Udal honek bereziki slatu nahi du PSOE alderdiak osatzen duen espainiar Gobernuak Tortura kasu honi dagokionean agertu duen jarrera, Rubalcaba Barne Ministroa zein Zapatero Presidentea gezurretan aritu dira Tortura hauek estali nahian, Guardia Zibilari erabteko babes agertu eta inpunitate bermatua izango dela agindu dute.

5.- Udal honek bat egiten du euskal herritarren gehiengo zabalak eskatzen duenarekin: euskal herritarroi aplikatzen zaigun Salbuespen legediaren amaiera, inkomunikazioaren amaiera, Audientzia Nazionalaren desagertzea. Bide beretik, udal honek bat egiten du Torturaren Aurkako Taldeak aurkeztu eta Torturarekin amaitzea helburu duen 9 puntuko zerrndarekin.

6.- Azkenik, udalhonek, Tortura helburu politikoarekin erabiltzen dela saltu nahi du, euskal independentismoaren aurka eHerriko eskubideen ukazioa iraunkortu asmoz. Hortaz, udal honek, Torturarekin, eta euskal herritarren eskubide urraketa guztiakin behingoz eta betirako amaitzeko marko demokratiko bat behar dela aldarrikatzen du. Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta euskal herritar guztiok gure etorkizuna libreki eta uakra politiko guztien artean erabakitzea bermatua iznagodugun marko demokratikoa, hain zuzen ere.

7.- Onartutakoa herritarrei zein komunikabideei helaraziko zaie. Euskal Herrian, 2008ko urtarrilean”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak hitza eskatzen du ondorengo mozio alternatiboa irakurtzeko:	El portavoz del grupo político EAJ/PNV D. Fidel Azpiroz Arrillaga solicita la palabra para leer la siguiente moción alternativa:
--	--

“TORTURAREN KONTRAKO MOZIOA.- Geldialdia da Euskadiren egoera politikoak bizi duena. Bake prozesua hautsi egin da, ETaren atentatu mehatxua egia da berriro ere. Lehendakaria eta beste zenbait politikari auziperatuak dira, geure gizartearen zti baten ordezkari politikoak legues kanpo dago eta ordezkari horren lider ugari espetxeratuak. Epaitegietan prozesu ugari dituzte ireki. Kale borroka indarrean.

Entegabeko oinarritzko eskubideen zapalketek –torturek, lege kanporaketek eta adierazpen eskubideari erasoek, pertsona nahiz ondasunen aurkako biolentziazko jardunek- ez diote inolaz ere laguntzen, gure herriak hain beharrezko duen soluzioaren bilaketari. Soluzioak baitu batetik oinarri, ezezkoa oinarriko eskubide ororen zapalketari; ezezkoa, bizitza, giza segurtasuna, adierazpen eskubidea, elakrtze eskubidea e.a... zapaldu bide duen eraso orori; eta baiezkoa, eskubide horien guztien alde egiteari. Eta oinarri ere behar ditu, adostasun politikoaren bilaketara garamatzaten ekimen oro, gure herriak bizi duen gatazka politikoari irteera ematea helburu, heriari demokratikoki berezkoa zaion erabakitze eskubide horren errespetuzko jokabideen bideetatik.

Zuzenbide Estatu Demokratiko batekin dira torturak bateraezinak. Tortura susmorik txikinea ere argitu behar dela uste dugu; argitu eta slatu, giza eskubideen zapalketa handi baitira.

Horiek horrela, Udal honen plenorako hona gure ekarpenak, berauen eztabaida eta onarpenerako.

1.- Estatuko Gobernuri Lege Antiterrorista bertan behera uzteko diogu eskatzen; Lege Antiterrorista eta atxilotuen isolatzea.

2.- Azken egunotan, Estatuko Segurtasun indarrek atxilotuta, slatu berri dituzten tortura jardunen aurrean, Udal honek bere kezka du azaltzen eta gertatua lehen baitlehen –eta eraginkorki- argi dadin eskatzen, hartu beharreko erantzukizun guztiei aurre eginda.

3.- Tortura nahiz tratu txarren aurka Udal honek luzatuak dituen adierazpen guztiakin bat egin nahi dugu berriro ere; pertsona ororen giza eskubide guztien defentsarako konpromisoarekin bat egiten, eta/edo ezein biolentzia eta estortsio jarrerei uko egiten.

4.- Isolamendu egoerari bide ematen dio arautegi berezia indargabetzeari dei egiten diogu, atxilotuei prozedurazko bermeak baitizkie gutxiesten.

5.- Isolamendu egoeran eta torturapean irekiak dituzten epai-prozesu guztiak, bertan behera utz ditzan eskatzen auzitegi nazionalari.

6.- Tortura saihestu eta saihaspen trencen ezarpenerako, nazioarteko erakunde zenbaitzuek –batik bat ONUtik kontalari bereziak- esandakoak praktikara ekarri ditzan diogu eskaten espainiar gobernuari.- Anoetan, EAJ/PNV Udal Taldeak, 2008ko urtarrila”.

Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen	Ante las mociones presentadas, el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar
---	---

Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa bozketara eramaten du Alkate jaunak ondorengo emaitza lortuz:	Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa” obteniendo el siguiente resultado:
--	---

Aldeko botuak/Votos a favor: SEI /SEIS (EAE talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Ondoren, Alkate jaunak “Torturaren kontrako” mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz:	Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Torturaren kontrako mozioa” obteniendo el siguiente resultado:
---	---

Aldeko botuak/Votos a favor: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: SEI /SEIS (EAE talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa onesten da.	Por lo que a la vista del resultado obtenido en la votación, se aprueba la moción “Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa.
--	--

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat jotzen du iluntzeko zortziak eta laurden direnean, eta neuk Idazkariak ziurtatzen dudalarik.	Y sin más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión a las veinte horas quince munitos, lo que yo, la Secretario certifico.
---	--